

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

#### Lizitaziora ateratzea Kuadrillaren jabetzako bi gaztelu puzgarriren adjudikazioa

Bat etorri Kuadrillako Batzarrak 2020ko irailaren 14an egindako bilkuran balio osoz hartutako erabakiarekin, iragarki honen bidez, Kuadrillaren jabetzakoak diren eta jada erabiltzen ez diren bi gaztelu puzgarriren adjudikazioa lizitaziora ateratzeko deialdia egiten da.

I.- Erakunde esleitzaila. Datu orokorrak, argibideak eskuratzeko datuak eta eskaintzak aurkeztea.

a) Erakundea: Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko:

1. Bulegoa: Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrilla.

2. Helbidea: Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren aldi baterako bulegoa, zeina Kanpezuko Udalaren egoitzan baitago. Samuel Picaza plaza, 1.

3. Herria eta posta kodea: 01110 Santikurutze Kanpezu.

4. Telefonoa: 945 40 54 24

5. Posta elektronikoa: [ccampezo.blanca@ayto.araba.eus](mailto:ccampezo.blanca@ayto.araba.eus)

6. Agiriak eta argibideak eskuratzeko eta eskaintzak aurkezteko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken eguna.

II.- Kontratuaren xedea.

a) Mota: salerosketa.

b) Xedearen azalpena: Kuadrillaren jabetzako bi gaztelu puzgarri besterentzea.

c) Lotetan banatzea eta lote kopurua: ez.

III.- Izapidetzea eta prozedura:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia, eta esleitzeko irizpide bakarra, eskaintza ekonomikorik onena.

IV.- Kontratuaren zenbatekoa:

a) Zenbatekoa, guztira: 1.300 euro.

V.- Kontratataren berriazko betekizunak.

a) Gaitasun ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko eta profesionala: administrazio klausula berezien agirian adierazitakoa.

VI.- Eskaintzak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrerako 15. egun naturala.

VII.- Eskaintzak irekitzea.

Kontratatzailearen profilean iragarriko da, gutxienez bi egun baliodun lehenago.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko irailaren 18a

*Lehendakaria*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**